

Akitaniatik datorren berba berria

Edorta Jimenez

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1995



Zumaiko Udala

*emskar
txanpa*



Akitaniatik datorren berba berria

Edorta Jimenez

Julene Azpeitia 8. ipuin lehiaketa

1995

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Edorta Jimenez (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Arratseko hozkirria aske sartzen da gelan. Leihoak zabalik dira.

Leihook baten batek itxi ezik, kanpoko hotza gaineratuko zaio Herioren hotzari. Gelaren erdian datzan hilotza gogortzen ari da. Laster ezin arteztu izango dute gorpua. Bere horretan ehortzi beharko dute: besoak erdi bildurik; hanka bat luze, bestea ezin luzaturik; begiak, inon ez diren argien bila, zabal-zabalik. Ezpata ere hortxe da, zurtz eta odoleztatua. Bestela, soin-enborrak hautsita, hezurak lokatuz, halaxe sartu beharko dute hilkutxan, gogortzen ari baita gorpua.

Zakurrak ahausika ari dira atetan. Ez du inork animalia fidel horien kexua aditzen, ala?

Inork aditzen badu ere, entzungor egiten die. Zakurren halako ahausiak, uhuri direnak kasik, seinale argia dira. Hilik da etxeko nagusia.

Basoan artega, usapalek zerbaiten zantzua sumatu dute. Zuhaitziko argiunean zaldi baten trosta-hotsak hegalarazi ditu usoak, ferrek harrien gainean laprast egin duteneko. Ezproinen aginduz trosta galapa bilakatu da halako batean, eta hor doa apatxen hotsa ahausien aurkako bidean ihes. Zaldunak hainbat arinen utzi nahi du atzean orain gorpu den jaunaren etxaldea.

Zaldiak inguru guztiko errekarik gardenena idoro du. Geldi baina puzka, ura edatera makurtu du burua. Zela gainean egokera doitu nahiz edo, zaldunak ere lasaitu keinu bat egin du kasketako betzuloa igoaz. Etoikeriek ez dute zaldunen itunetan lekurik. Inork etoikeriatzat jo dezakeen ezer egin baledi, bada, isiltasunik isilenean egin behar. Godofredok ez du horretan zalantzaren izpirik ere bere baitan. Ohorearen legeak betez akabatu du (ez du heriotza eman dionik esan nahi, halako piztiari piztiekin egiten dena egiten baitzaio, akabatu); diot, hala bada, Godofredok kendu diola bizia dorretxeko ganbara nagusian hilotz datzan zaldunari.

Zaldiak egarri ase duelako itxura egin dueneko, uhal-tenkada arin batez agindu dio trostan jartzeko. Ez diote aieru onik egin erreka alboko altzek, are gutxiago erroien karranka infernuko horiek entzuteak.

Dorretxeko ganbara nagusiko leihoek iluntzeko azken urre-printzak barrura igaro arazten dituzte.

Hilik datzan zaldunaren kasketa gainean odol lehortuaren gorri iluna ilunago egiten da, eta odola ilunago egiten den hein berean gainerako guztia burdinezkoago, ia zilar hutsezko, bilakatzen da.

Etxeko Andrearen oihuak aditu dira, zakurren ahurien gaineratik eurok baino minberago dorreko harmaila nagusietan gora datozelarik. Azken harmaila baino goitiago burua azkenik, ez du beste ezer ikusi Andreak han urrenean, dorreko goialdean pausatutik bezala datzan itsasoa baino.

Urgainak zauri moduko bat du, halako uhara luze bat. Andreak aieru txartzat hartu du uhara, eta hasperen egin du.

Hasperena aldarri bilakatu da; aldarria alarau eta alarua heia gora. Zakur-ahurien antzeko batean urtuz, arin joan da emakumea gorpuaren aldera, belaunikatu egin da, beso artean jaso du burua, kasketa kendu dio, eta gizonak odol-erio dituzkeen zauriak bilatzeari ekin dio. Ez da ja odol berririk zaurietan. Aspaldi odolustua da zalduna.

Martin! Hilik datzanaren izena hamaika aldiz esan du bere artean andreak, hamaika modutara, eta ez don hamahiru esan du azkenean. Zutitu eta dorretxeko hegira jo du, inor ote den inguruan.

Eguzkiak ez dio mendebaldea ondo ikusten utzi, hango mendien lepoan ostentzear baita.

Eki eta hego aldeetan basoa du auzokide dorretxeak. Batek daki horko sarrian sartu ote den hilgilea. Haize hotza dakarren iparrerantz begiratzea geratzen zaio.

Iparraldean itsasoa antzeman du andreak han urrenean sutan legez. Honatago hareatza itzelak dira, orain ubide urria den ibaiak zati bi eginak. Goitik behera datorkion iluntasunean itzal bilakatzen ari delarik, zalduna ikusi du. Behingoan ezagutu du. Godofredo!

Godofredok geldi! agindu dio zaldiari, bera eta biak zeharkatzen ari diren ibian erdian une batez hantxe gera dadin. Burua bihurturik, azken begirada bat luzatu dio atzean uzteko zorian den guztiari, zapelaitzak egiten duen bezala luzatu ere: borobilean; baketan ikusi du Munikeko pueblari babes egiten dion gaztelua, eta alde horrextako dorretxea ere. Baketan da dena, elizako ormatzarrak, basoak, abeltzainen bordak eta beste dorretxe hori ere, arerioa bertan gorpu utzi duena. Baina baten bat dabil hango almenan.

Ezagutetsi egin du Godofredok dorretxeko emakumea. Zitada itzela eman dio bihotzean haren ikusteak. Eta hark bera ikustean ere berdin sentitu duelako susmoa izan du. Eleonor! Zelan ez zuen ezagutuko berak, bada, haren buruko tokatua; okozpean loturik gorantz biltzen zaion zapia, zapiaren azpitik hazten den enbor modukoa, enborraren adar bakarra gorantz eta, azkenik, adarra beherantz jausten deneko horrextan, zakilabaren antzeko burua. Fraideek aspaldion ezta usaindu ere egin nahi ez duten burukoa da Eleonorrena, ederretan ederrena.

Godofredori Eleonorren gaztetako kaskasoila etorri zaio gogora. Haren garondoaren ederra, eta garondoren goian, haren adatsaren borobila, ezkongabea zela seinale. Orain burukoa ezkondua denaren seinale argia den bezain argi.

Akitaniako erreginaren izena eman zioten, Eleonor, jaio baino ez eta erregina baten mainak zituelako umeak.

Aitak ez zuen zalantzarik izan. Errikardo Lehoi Bihoztun eta Juan Lur Gaberen ama, Eleonor, harexen izena eman behar zion, zeren eta bera Alde Santuetako guduetatik etorri eta hurrengo urtean jaio baitzen alaba.

Bretainiako Eskotia urrunetik, Adelaida eta Tolomea are hurrenagoetaraino, kristau munduan barrena zabaltzen ari zen Zalduneriaren usadio eta arauen jakitun itzuli zen Munitizko jaun nagusia, Eleonorren aita. Zalduneri horren kodea, halaxe irizten ziotelako idazten dut hitz berri hori, laster zabalduko zen Munitizko leinuko artean. Eta ibaiaz beste aldeko dorretxeko jauna, Godofredoren aitak, berak ere Kristo Gure Jaunaren Hilobi Santua jarein egitearen bila Palestina Urrinera egin zuenean, aldiz, leinu biek izan zuten ohore bera, alegia, zaldunak izatea. Haatik, horrek ez zuen leinuen arteko bakerik ekarri, zalduneriak ez baitzituen odolaren legeak hautsi, ezta ahaztarazten lagundu ere. Bekaizgorako zio berriak ekarri zituen sukar berriak, haatik.

Etorreran ibi hau berau zelan baliatu duen gogoratu zaio Godofredori. Goizalde izan da, egun-argiak kresal-ibaiko langarra urratu baino lehen. Ezkutuan egin beharrekoa zen egitekotan zena. Alde honetako inork ezagutzen gero, hila zitekeen. Ez Martinek ez berak nahi zuten halakorik gerta zedin, ez ezpaten indarra elkarren besoen giharrez neurtu aurretik behintzat.

Zaldunen urrezko arauak ezagutzen dituzten biren artekoa izan beharko zen Martin eta Godofredok dama bategatik zuten auziarria, odolez garbitu beharrekoa. Odol hori zainetan hotz gorde du Godofredok, arratsaldea igarri arte ibaiertzeko urkitzan eman baitu denbora, ezkutuan. Hango hegaztiei beha igaro ditu orduak, eta bat izan zaio hegaztien artean gogokoen; martin arrantzaria. Buruak hegan egin dio, Martinen izkribua eskuetan hartu zuen unera egin ere.

Martinek mezu argia igortzen zion. Etxeko eta inguruko guztiak San Bartolomeren ermitan izango ziren eguerdi ostean. Bada, bidea franko izango zuen, dorretxeraino arriskutan sartu barik hurrera zedin. Hantxe konponduko zuten auzia. Harri eginik geratu zen Godofredo. Martinek emoten deua aukera! Hire ordua ailegatu dok!

Harriturik zen Eleonor ere. San Martin eguna izaten zen beti leinuko santuarena, ez baitzen alferrik Martin etxeko jaunaren grazia. Martinen aldetik grazia hori hazilaren hamaikan, San Martin egunean, jaio zelako zen.

San Bartolome jaia hala ospatzea, oilaskoak hil, ardoak zahagietatik pitxerretara hustu, morroiei zamariak prestatzeko agindu, abadeari meza berezia egin zezan saria eskaini eta gero bera mezaren ostean edo eguerdia alderantz etorriko zela hitz ematea, hori guztia ez zen ohikoa; ez.

Soroetan galburuak urre bihurtzen zihoazen adinean, San Bartolome aldera, hain zuzen, beharrak ugaltu egiten. Hala da ezen, susmo txarra hartu du Eleonorrek jaunaren asmoen berri jakin duenean. Men egin, beste jokabiderik ez zuen andreak.

Meza ederra izan da. Abadea pozik agertu da aldarearen aurrera, gogoan kanpoan gertatzen zihardutenaren usainak susperturik. Leinuko emakumezko nagusiak, Eleonor bera eta alabatxoarekin batera, eskuinaldean jarri dira, antzinako ahaide zaharren hilobietako harlauzen gainean. Martinen gogo hor dautzan gorpuak, leinukoak, euren odolaren iturri orain agortua, eliza berriko aldarean jartzea da. Hilak euron jarlekuetan baketan uztearen aldeko da Eleonor, eta honetan badu hitzik, entzun egin beharko dio senarrak. Alferrik,

itxuraz. Meza aurrera joan ahala ama eta alaba artegatu egin izan dira atearen krisketak hots egin duen guztietan. Baina leinuko gizonezkoen aldea, ezkerretakoa, hutsik izan da abadeak itemisaest, esan eta guztiek Deogratias erantzun dutenean, artean ere.

Abadearen hizkera, euskara eta erromantzearen arteko nahastean, mordoilago egin da mezaren osteko oturuntzan.

Oilaskoaren errea eta txakolinaren urrea buztartuz, oles egiteari ekin dio Eleonorren dontzeilak, kantuan. Xirula arin bat jarraitu zaio dontzeilaren ahotsari. Haren kantuari laguntzeko gainerako gonbidatuek jo dituzten txaloek atabal xume baten larruan izan dute oihartzun.

Kriskitin egiten irakatsi gura izan dio abadeak Eleonorren dontzeilari. Martini esan behar diola otu zaio andreari, abadeak auzoan beste emakume bat duelako ohaide, eta ezelan ere ez diolako dontzeilari gordea egin diezaion utziko.

Baina Martin berandu dabil. Artega eta luzetsita da Eleonor. Txakolinak bere lana egin du, aldiz. Ardurak ardura, loak hartu du andrea, hantxe, hariztiko gerizpean. Dontzeilak Akitaniako Gorteko kantu bat egin dio haren edertasunari, laudaz lagundurik. Etxeko bigarrena den Errondalek, bihotza bularretik eskuekin atera eta hantxe dontzeilaren oinetan uzteko gai litekeela esan dio bere buruari.

Itzartu denean bihotza estu eta urdaila larri nabari ditu Eleonorrek. Zer egin ote da Martin ager ez dadin?

Zaldiari zela jar diezaioten agindu du. Martinen lehengusu Erroldanek ez dio utzi nahi izan. Eleonorrek dontzeilaren eskuetan utzi du Erroldan elizpeko zokondora joanaraztea. Lar berandu honez gero.

Lehentxoago Martinek arerioaren zaldia aditu du, trostan basoan barrena. Zidorrez zidor, xenderetan goiti urreratu da Godofredo etoi halakoa.

Janzteko tenorean dela erabaki du Martinek. Aitak Palestina urrinean erabili ohi zuen ezpata hartu du.

Ezpata astuna da, Aita Sainduak bedeinkatua, zein aita sainduk bedeinkatu zuen ez dakien arren. Etxekoen jarlekuak elizako aldare nagusian ipini ahal izan dezan ez da ezer ere alferrik izango, ezta aita saindu guztien izenak buruz ikasteko beharra ere.

Zaldiaren irrintzia etorri zaionerako, kasketa ezartzea baino ez zuen falta Martinek. Hori Godofredo aurrean izan dezanerako utzi nahi du. Gainera, ez du burdinaren gainean aitaren egin nahi, bekokiko azalean eta ahoko ezpainetan baino. Adurra alde nahi du, kosta ahala kosta.

Godofredo horrek ere Palestina aldean erabilitako ezpata ekarri ote duen egin du bere artean Martinek, ateari bere erroetan karrask eragin aurretik. Grazia ederra Godofredo, kristandadearentz Jerusalem lehenengo bidarrez hartu zuen konde bulartsuarena berbera. Jakingo ahal du beste horrek ere haren dohainen itzala bederen erakusten.

Zaldun biak aurrez aurre izan dira etxeko jaunak atea zabalduko dueneko. Godofredok zaldiaren talaiatik egin dio so Martini, argoi. Martinek murtik ere egin gabe itxaron du etsaiak zaldiari uhalak urki batean lotu dizkion

arte. Zakurrek etorri berriari zaunka egin eta etxeke jaunak ixil! agindu die. Buztana ezkutatu eta hantxe entzun dira, isil-isilik eta triste.

Bekoz beko geratu dira une batez zaldunak. Hotzikara jelatu batek sorbaldako bidea goitik behera egin dio Godofredori. Martinen aurpegiak erakusten duen erabakiaren sendoa, ahoaren inguruko ebatondoa, ezkerreko bekainean falta dituen ileak, sudurraren zapala, zaurietan ereindako hazien fruituak dira. Zenbat seinale, hainbeste zauri, hainbeste gudu-zelai, hainbeste odol-lats. Etsaia bera baino zailduagoa dela jakin du orduan Godofredok.

Godofredok Martinen izena esan du, Martin Munitizko; Martinek Godofredoren izena esan du, Godofredo Atzarreko. Gero, aitaren egin dute biek, eta zaldunen ohi duten zina egin dute: Jainkoa zuzentasunaren alde!

Haizearen menpeko hosto batek orri bilakatzeko behar duen tarte laburrean zaldun gazte biek gogoeta bertsua egin dute; leinu garbikoa haiz, esan diote euren buruari.

Oraingo hau ez da leinuen arteko liskarra, haatik; zalduneriaren legeak miretsi, landu eta bete nahi dituzten zaldun biren arteko zorren kitatzea da oraingoa.

Beste edozein egunetan Munitizkoek ahaide guztiak bilduko dituzte, eta Etxezarrekoei erasoko diote; edo Etxezarrekoei bilduko dituzte leinukoak, ahaide, morroi eta enparauak, eta Munitizekoei ekingo. Alde bietakoek dute amets elkarren dorretxe guztiak erastea, soloak soiltzea, basoak ebagitea eta jarlekuak elizetatik erauztea. Orain osterara beste bat da auziarria, Dama baten ohorea da jokoan.

Etortzen datorren udagoieneko lehen orri bihurtu den hostoa, behera jausi da, hozkirriaren besoetan nagi.

Ezpata zolatik atereaz beste oihu bana nagusitu zaie, ordea. Jok, erak! Jok, erak! Biek esan diote ezpatari azti-hitz izan litezkeen konjuruzkoak, euskal gerrari bulartsuen heriotza aurreko berbak.

Eleonorrek ere konjuruzko hitzak esan nahi lituzke, zaldia, Akra izeneko hori, arinago joan ledin. Zelan ez ote da ba hasiera-hasieran jabetu?

Godofredok damatzat hartu nahi izan du, gutunak eta lurrinak, erromantzezko olerkiak eta loreak igorri izan baitizkio. Erromantzea leiduten ikasteko ahaleginak egin dituzte Dama eta Seinoie guztiak aspaldion, maitasunak —Akitania aldetik datorren berba berria bera— politesea eskatzen baitu.

Zein alde, zein, Godofredok gaztetan antzinako eran gogoko emea bera zuela esan zionetik hara. Emea! Dama eta seinorea esaten ikasi dute guztiak orain. Berak, Eleonorrek, ezetz esan nahi izan zion, biak sasitzan gal zitezen utziko ez ziola, dontzeilatasuna gorderik zuela, harik eta inork ezkontzako ezteietan hartu arte.

Ez daki Godofredok, orain, espata kolpez Martinen espata kolpeei erantzuten dielarik, ez daki, ez, zelan ez ote duen Martinek Zaldunen arteko legea onartzen, hain zuzen ere, platonismo hutsez Eleonor maite dezan zertan ez dion uzten. Esan ere egin dio, Martin, ez al haiz zaldun, ez duk jakin Eleonorrenganako nire maitetasuna liburuetakoa dela?

Etoi hori! Hemen ez gaituk liburuetako mengelkeria horiengatik.

Eta Martinek bere barruko pozoi guztia ttu! atera du, suge-mihizto bilakatu zaion mihingainaz. Gaztetan bere Eleonorren birjindadea ostu ziola esan dio Godofredo harrituari.

Godofredok ezetz esan nahi izan dio, ez zuela sasitzara eraman Eleonor, ez dela sasikoa Martinen alaba zoragarria. Alferrik. Martinen ezpatak kasketan bertan-bertan jo dio, ez indar lar handiz, zorionez. Eta ihesari ekin dio Godofredok.

Eleonorren zaldiak dorretxera baino arinago egin du Godofredok hango harmailetan gora, Martinen ezpata trebeak orpoak jan gura dizkiola.

Akre! Andrearen zaldiak gurutzaden gotorlekuaren izena du; sendoa bezain astuna da, horregatik.

Zalduneriaren legeak, guztiak hantxe irentsi ala hil bestela, halaxe otu zaio Godofredori egin beharko lukeela. Ailegatu da ba goi-ganbarara, orain Eleonorrek Martinen gorpua besoetan duen horrexetara, eta zirt ala zart, zutik, ezpata goi-goi eta esku biekini oratuz itxaron dio.

Martin harmailetan gaindi agertu da, eta zutitu orduko goitik behera etorri zaio arerioaren ezpata. Heriok puzka bakar batez eman dio bere hotza. Hilik erori da, gorpu.

Etxeko jaunaren zakurrak orduantxe hasi dira ahausi eta ahausi, euren jaunaren arimaren hatsa airean aske sumatu duteneko.

Eleonorrek zakurren ahausiak aditu ditu, eta ekandu zaharrek eta aztien kondairek diotena sinetsiz, senarra hilik duela jakin du, kristauek baino lehen zakurrek jakiten dutelako jaunaren heriotzaren berri.

Godofredok, etxerako bidean ilargia lagun duelarik, gezurra Martinen belarrietara norik helarazi ote duen doa, isilik. Leinuen arteko guduaren ilentiei arnasa berria emanez gorrotoaren suak indar har lezan nahiko lukeen bateren baten jukutria izan egin dela, zin egin lezake. Eta negar egin du, Eleonorrek Munitizkoen dorretxean bere Martinen hilotzari negar egiten dion bezain etsiturik, ez zalduneriaren liburuetaoak bezain gatazka ohoretsua izan ez delako; ez. Heriotza horrek ekarriko dituen beste guztiengatik egin du negar Godofredok.